

## SAN FAUSTO PLAZA BERRIAREN PROIEKTUA AUKERATZEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA. EMAITZEN TXOSTENA / PROCESO PARTICIPATIVO DE ELECCIÓN PROYECTO DE LA NUEVA PLAZA SAN FAUSTO. INFORME DE RESULTADOS

### AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

Basauriko Udalak abian jarri du San Fausto Plaza berriaren proiektua aukeratzeko prozesu parte-hartzailea. Helburua da herritarrek botoa ematea horretarako kontratatutako aholkularitza-enpresak idatzitako hiru proposamenen artean, eta azkenean gauzatuko den proiektua aukeratzeko.

Partaidetza-prozesu honetan aurkeztutako hiru proposamenen artean boto gehien lortu dituenaren proiektua gauzatuko du udalak.

Prozesuak bi fase izango ditu:

1. fasea: Herritarrek bozkatzea.
2. fasea: Udalak prozesuaren emaitza argitaratu du, eta hautatutako proposamena gauzatzeko proiektu gisa onartu da.

El ayuntamiento de Basauri pone en marcha el proceso participativo para la elección del proyecto de la nueva Plaza San Fausto. El objeto es que la ciudadanía vote entre las tres propuestas redactadas por la consultora contratada para la ocasión y elija el proyecto que finalmente se ejecute.

El ayuntamiento ejecutará el proyecto elegido como el más votado de entre las tres propuestas presentadas en este proceso participativo.

El proceso constará de dos fases:

- FASE 1: Votación de la ciudadanía.
- FASE 2: El Ayuntamiento publica el resultado del proceso y la propuesta seleccionada se asume como proyecto para la ejecución.

### BOZKETARAKO BALDINTZAK / CONDICIONES PARA LA VOTACIÓN

Botoa emateko, honako baliabide material hauek erabili dira:

- a) Otsailaren 18tik 19ra bitartean, 11.500 bando jarri ziren udalerriko atarietan prozesuaren berri emateko. Ikus I. eranskina.
- b) Bozketarako 10 hautestontzi jarri dira:
  - Udalaren eta San Migelen HAZn.
  - Pozokoetxe Kultur Etxean, Ibaigane Kultur Etxean, San Miguel Kultur Etxean, Basozelai Gizarte Etxean,

Para ejercer el voto se ponen los siguientes medios materiales:

- a) Entre los días 18 y 19 de febrero se coloca el bando municipal informando del proceso en los portales del municipio, 11.500 bandos. Ver anexo I.
- b) Se colocan 10 urnas para votación en:
  - En el SAC del Ayuntamiento y de San Miguel.
  - En la de Casa de Cultura Pozokoetxe, Casa de Cultura Ibaigane, Casa de Cultura San Miguel, Centro Cívico

Ariz Dorrean, Kareaga Gizarte Etxean.

- Artunduagako kiroldegia, Udal Euskaltegia.

Toki horietan guztietan eskuragarri ipini da botoa emateko formularioa, hautestontzietara bilduta. Ikus II. eranskina.

- c) Inprimakia, behar bezala beteta, Udaletxeko, Los Burroseko, Solobarria plazako, Valentzia kaleko eta San Migueleko Hernán Cortés plazako metro ahoen ondoan dauden 5 parte-hartze postontzietan ere utz daiteke.
- d) [ados.basauri.eus](http://ados.basauri.eus) webgunean ere eman daiteke botoa, ziurtagiri digitalik gabe.

Bozketarako bi baldintza ezarri dira:

- Basaurin erroldatutako eta 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte har dezakete prozesuan.
- Ez da onartzen formulario ofiziala ez den beste formulariorik duen botorik.

Basozelai, Torre de Ariz, Centro Cívico Kareaga.

- Polideportivo de Artunduaga, Euskaltegi municipal.

En todos estos centros se puede recoger el formulario para la votación junta a las urnas. Ver anexo II.

- c) El formulario debidamente cumplimentado también se puede depositar en los 5 buzones de participación ubicados junto a las bocas de metro del Ayuntamiento, de Los Burros, de la Plaza de Solobarria, de la calle Valencia y en la Plaza Hernán Cortés de San Miguel.
- d) También se puede votar en el sitio web [ados.basauri.eus](http://ados.basauri.eus) sin necesidad de certificado digital.

Se establecen dos condiciones para la votación:

- Pueden participar en el proceso todas las personas empadronadas en Basauri y mayores de 16 años.
- No se admiten votos con otro formulario que no sea el formulario oficial.

**BOTOEN BANAKETA / DISTRIBUCIÓN DE LOS VOTOS**

Emandako botoak honela banatu dira kanalaren arabera:

Los votos depositados se han distribuido de la siguiente manera en función del canal:

Kanala Canal	Botoak Votos	Baliogabeak Nulos
SAC Udala	36	1
SAC San Miguel	5	1
Casa de Cultura Pozokoetxe	26	2
Casa de Cultura Ibaigane	57	3
Casa de Cultura San Miguel	7	2
Centro Cívico Basozelai	76	10
Torre de Ariz	8	2
Centro Cívico Kareaga	4	1
Basauriko Udal Euskaltegia	10	1
Polideportivo Artunduaga	33	3
Buzón: Metro Udala	1	0
Buzón: Metro Nagusia	10	0
Buzón: San Miguel (C/ Hernán Cortés)	0	0
Buzón: Metro C/ Valencia	1	0
Buzón: Metro Bidasoa Ibaia	1	0
Web Participación	449	0
<b>Azpigutzikoa / SubTotal</b>	<b>724</b>	<b>26</b>
<b>Guztikoa / Total</b>	<b>698</b>	

Honela banatzen dira sexuen eta adinaren arabera:

Dándose la siguiente distribución por sexos y edades:

GIZONA / HOMBRE	315
EMAKUMEA / MUJER	383
>=65	127
<65 y >=26	527
<26	44

## PROZESUAREN EMAITZA / RESULTADO DEL PROCESO

Hona hemen proposamen bakoitzak lortutako boto baliodunak:

Los votos válidos obtenidos por cada una de las propuestas es el que sigue:

PROPOSAMENA PROPUESTA	BALIOZKO BOTOAK VOTOS VÁLIDOS
C	475
B	127
A	96

Basaurin / En Basauri,

Berrikuntza, Gobernu Irekia eta herritarren Parte-Hartzea

Innovación, Gobierno Abierto y Participación

## I. ERANSKINA. UDAL BANDOA / ANEXO I. BANDO MUNICIPAL

**EMAN BOTOA SAN FAUSTOKO  
PLAZA BERRIAREN PROIEKTUA  
AUKERATZEKO**

Basauriko Udalak, herritarren **parte-hartzea** bultzatzeko eta **irekitzeko** politikaren barruan, zuen iritzia ezagutu nahi du, **San Fausto plaza berriak** (Trintxerak) izango duen diseinua aukeratzeari begira.

Plaza berri horren eraikuntza **San Fausto, Bidebieta eta Pozokoetxeren Hiri Berroneratzeko planaren** parte bat da. Plan horren bidez, inguru guztia **eraberritzen** ari da, hirigintzaren ikuspegitik, eta **erabilera publikoko gune berriak, auzoen arteko loturak, berdeguneak eta parkeak** sortzen ari dira.

Plaza herritarren **aisialdirako eta kultura-, kirol- edo gizarte-ekitaldiak** egiteko espazio gisa pentsatuta dago; beraz, hiru proiektuek premisa hori hartu dute abiapuntutzat. Proiektuak **ikusi** eta horien ezaugarri nagusiei buruzko **informazioa jaso** dezakezu **ados.basauri.eus** webgunean, udaletxeko beheko solairuan kokatutako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bulegoan eta **kultura-etxeetan, gizarte-etxeetan, Euskaltegian eta Artunduaga kiroldegian.**

**Bozkatzeko epea:** **otsailaren 22etik martxoaren 3ra.**

**Bozkatzeko lekuak:**

-Online, **ados.basauri.eus** webgunean.

-**Aurrez aurre:** **jaso bozkatzeko inprimakia** lehen aipatutako udal-eraikinetan, eta **bozkatu han bertan edo utzi zure botoa** udalerriko hainbat lekutan jarritako **postontzietan.**

**VOTA PARA LA ELECCIÓN DEL  
PROYECTO PARA LA NUEVA  
PLAZA SAN FAUSTO**

El Ayuntamiento de Basauri, dentro de su política de **apertura** y fomento de la **participación** ciudadana, quiere **contar con vuestra opinión** de cara a elegir el diseño que tendrá la **nueva plaza San Fausto** (Trintxeras).

La construcción de esta nueva plaza forma parte del **plan de Regeneración Urbana de San Fausto, Bidebieta y Pozokoetxe**, con el que se está **renovando** urbanísticamente todo el entorno y **generando nuevas zonas de uso público, conexión** entre barrios, **espacios verdes y parques.**

La plaza está pensada como una zona para el **esparcimiento** de la ciudadanía y también como un **espacio para la celebración de eventos** culturales, deportivos o sociales, por lo que los tres diseños parten de esta premisa. Puedes **verlos e informarte** sobre sus principales características en la web **ados.basauri.eus**, en las oficinas del Servicio de Atención Ciudadana (SAC) de la planta baja del Ayuntamiento y San Miguel y en las **casas de cultura, centros cívicos, en el Euskaltegi y en el polideportivo de Artunduaga.**

**Plazo de votación:** **del 22 de febrero al 3 de marzo:**

**Lugares de votación:**

-online en la web **ados.basauri.eus**

-**presencialmente:** **recoge el folleto de votación** en los edificios municipales anteriormente citados y **vota ahí mismo o depositalo** en los **buzones** ubicados en diferentes puntos del municipio.

Basauri, 2022ko otsailaren 17a / Basauri, 17 de febrero de 2022

ALKATEA / EL ALCALDE

Sn. / Fdo.: Asier Irigorri Basaguren



## II. ERANSKINA: BOZKETARAKO FORMULARIOA

### ANEXO II: FORMULARIO PARA LA VOTACIÓN

Nombre y apellidos: \_\_\_\_\_

Fecha de nacimiento: \_\_\_\_\_

DNI: \_\_\_\_\_

# PLAZA SAN FAUSTO

Vota al proyecto de la nueva plaza San Fausto que más te guste marcando la casilla con una X

Propuesta A



Propuesta B



Propuesta C



Izen abizenak: \_\_\_\_\_

Jaiotze data: \_\_\_\_\_

NAN-a: \_\_\_\_\_

# SAN FAUSTO PLAZA

Eman bozka gehien  
gustatzen zaizun **San  
Fausto** plaza  
berriaren proiektuari,  
laukitxoan X bat  
jarrita.

